Vitoria-Gasteiz

VITORIA-GASTEIZ
winner 2012
EUROPEAN
GREEN CAPITAL

# agenda Ataria

## uda

## verano

CEA

CEA

Udaren oroitzapen errepikakorrik bada, landari, naturari eta erlojua ahaztuta egiten ditugun paseo lasaiei lotuta dago. Garaiko soinuez blai daude inguruak eta, begiak itxita ere, inguruneaz goza dezakegu.

Eta irudi hori oso bukolikoa izan badaiteke ere, Atariak aurtengo udarako programazioarekin dituen asmoak bide horretatik doaz. Izan ere, heldu da uda, bi zentzutan ulertuta: alde batetik, meteorologikoki egunak atseginagoak dira eta, bestetik, egunak luzeagoak direnez eta oporrak izaten ditugunez, aisialdiaz gozatzeko garaia da.

Esku artean duzun argitalpenean, sasoi horretarako proposatzen ditugun jarduera guztiak aurki ditzakezu. Ohi denez, herritar guztientzat daude pentsatuta. Gozatzeko, bai, Ataria aisialdirako gune iraunkorra baita. Baina baita dibulgaziorako ere, ez dezagun ahaztu. Eta batak eta besteak elkarri lotuta ibili behar dutenez, mintegiak, erakusketak eta ibilbideak proposatzen dizkizuegu. Horietan, gure ingurunea geure ondarea dela ikus, ikas eta barnera dezakegu. Ingurunea ezagutzeak ingurunea errespetatzea eta zaintzea esan nahi du.

Gero eta gehiago gara. Ezin duzu huts egin. Ongi etorri Atariara.

Si hay un recuerdo de verano frecuente es el que va ligado al campo, a la naturaleza, a los tranquilos paseos en los que el reloj queda olvidado. Los sonidos son los que tienen que ser en esta época, e incluso cerrando los ojos podemos disfrutar del entorno.

Y aunque pueda pecar de bucólica, no se encuentra muy lejos de la intención de Ataria con su programación de este verano. Porque llega el tiempo, en su dualidad, un tiempo más agradable en lo meteorológico, y también, fechas en las que quien más, quien menos, puede gozar de más tiempo libre, con los días más largos, vacaciones...

En la publicación que tienes entre manos podrás descubrir todas las propuestas que planteamos para estas fechas, que como es habitual, están ideadas para el disfrute de toda la ciudadanía. Disfrute, sí, porque Ataria se ha convertido en una zona de ocio sostenible. Pero también, no lo olvidemos, de divulgación. Y porque una y otra deben ir de la mano, os proponemos talleres, exposiciones y recorridos en los que ver, aprender y asumir que nuestro entorno es nuestro patrimonio. Que conocerlo es respetarlo y defenderlo.

Cada vez somos más. No puedes faltar. Bienvenido a Ataria.

Alba Cañadas

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Presidentea / Presidenta del Centro de Estudios Ambientales

# uda / verano




Erakusketak
Exposiciones 5





Tailerrak - Ikastaroak
Talleres - Cursos 8





Familientzako jarduerak
Actividades familiares 13





Natur ibilbideak
Recorridos naturalísticos 17



# Ataria

## Salburuko Hezeguneen Interpretazio Zentroa

Biosferaren pasealekua, 4
P.K. 01013
Tel.: (34) 945 25 47 59

ORDUTEGIAK
Neguko ordutegia. Egunero.
(azaroaren 1etik martxoaren 31ra)
Goizean: 10:00etatik 14:00etara.
Arratsaldean: 16:00etatik 19:00etara.

Udako ordutegia. Egunero.
(apirilaren 1etik urriaren 31ra)
Goizean: 10:00etatik 14:00etara.
Arratsaldean: 16:00etatik 20:00etara.

## Centro de Interpretación de los Humedales de Salburua

Paseo de la Biosfera, 4
C.P. 01013
Tel.: (34) 945 25 47 59

HORARIOS
Horario de invierno. Todos los días.
(del 1 de noviembre al 31 de marzo)
Mañanas: de 10:00 a 14:00 h.
Tardes: de 16:00 a 19:00 h.

Horario de verano. Todos los días.
(del 1 de abril al 31 de octubre)
Mañanas: de 10:00 a 14:00 h.
Tardes: de 16:00 a 20:00 h.

## Izenematea (*)

**Zozketarako izenematea:**
ekainak 1 – 20
Udal webgunea, Ataria, IGI
eta gizarte etxeak

**Zozketa:** ekainak 21
Zozketaren emaitza CEAn, 010 telefonoan eta gizarte etxeetako Herritarren Arretarako Bulegoetan kontsultatu ahal izango da

**Izenematea:** ekainak 22 – 28

**Bete gabeko plazak:**
ekainaren 29tik aurrera

## Inscripciones (*)

**Inscripciones para el sorteo:**
1 – 20 de junio
Web municipal, Ataria, CEA
y Centros Cívicos

**Sorteo:** 21 de junio
El resultado del sorteo se podrá consultar en el CEA, el 010 y las Oficinas de Atención Ciudadana de los centros cívicos

**Inscripción:** 22 – 28 de junio

**Plazas libres:**
a partir del 29 de junio

www.ataria.es


Marcello Calandri

# Naturaren argazkilariak

## *Fotógrafos de la Naturaleza*

'Wildlife Photographer of the Year' lehiaketa ospetsuan sarituriko irudien aukera bat jasotzen du erakusketak: 'Naturaren Argazkilariak 2011'. Lehiaketa hori Londreseko Natural History Museum-ek eta BBCren Wildlife Magazine-k antolatzen dute.

Uztailaren 3a arte, Atarian lehiaketa horren XXXVII. edizioko argazkirik onenen bilduma egongo da ikusgai. Lehiaketa 1964an sortu zen. Garai hartan, aldizkariak Animals izena zuen eta hiru kategoria baino ez zituen. Lehen edizio horretan 600 argazkilarik hartu zuten parte.

Aurten sari absolutua merezi izan duen argazkia Bence Mâte hungariarraren 'Teatro de sombras' izan da. Argazkilari hori, hain zuzen, ohiko parte-hartzailea da. Irudi horretan argiekin, kontraargiekin, ehundurarekin eta konposaketarekin jokatzen du argazkilari magyarrak, Costa Ricako inurri hosto-ebakitzaileak betebetean lanean dihardutela erakusteko.

'Fotógrafos de la Naturaleza 2011' es una exposición, que muestra las imágenes premiadas en el prestigioso concurso 'Wildlife Photographer of the Year', que convocan el Natural History Museum de Londres y la BBC Wildlife Magazine.

Hasta el 3 de julio se podrá visitar en Ataria una colección con las fotografías más destacadas en la XXXVII edición de este concurso, que se remonta a 1964 cuando la revista se llamaba Animals y sólo había tres categorías y participaban alrededor de 600 fotógrafos.

La fotografía que ha merecido este año el premio absoluto, 'Teatro de sombras', es obra del húngaro Bence Mâte, un habitual del concurso. En esta imagen el fotógrafo magiar juega con las luces, contraluces, texturas y composición para mostrar en plena acción el trabajo de las hormigas cortadoras de Costa Rica.

**Maiatzak 5 - Uztailak 3**
**5 Mayo - 3 Julio**
**ATARIA**



Microfauna

# Unibertsoa miniaturan

## *Universo en miniatura*

“Unibertsoa miniaturan” ekimenak intsektuen mundu harrigarria gerturatzen digu. Intsektuen taldea askotariko izaki biziek osatzen dute, eta munduko biodibertsitatearen zati handi bat hartzen dute.

Erakusketak intsektuen forma ugarietan jartzen du arreta, lurreko ekosistema gehienak kolonizatzeko duten ahalmenean eta horien biomasa-kantitatean. Gure erakusketak intsektuen moldatzeko gaitasuna aztertzen du –izan ere, horrek ahalbidetzen die egungo hedapen handia–, baita talde horretako espezie batzuek garatzen dituzten gizarte-egitura konplexuak ere.

“Universo en miniatura” nos acerca al sorprendente mundo de los insectos. Un grupo considerablemente diverso de seres vivos que acapara gran parte de la biodiversidad del planeta.

Esta exposición se fija en la enorme variedad de formas presentes entre los insectos, en su capacidad para colonizar la mayoría de los ecosistemas de la tierra y en la cantidad de biomasa que aportan. La muestra repasa alguna de las adaptaciones que les permite mantener una distribución tan amplia y se detiene en las complejas estructuras sociales que desarrollan ciertas especies de este grupo.

**Uztailak 12 - Irailak 11**
**12 Julio - 11 Septiembre**
**ATARIA**



Francisco José Hernández

# Paperezko hegoak

## *Alas de papel*

Francisco J. Hernández margolari eta naturalistak, hainbat teknikaz, hala nola oleoz, akuarelaz eta akrilikoz, eginiko lanen bitartez, hegaztien mundura begirada bat proposatzen digu.

Irudiak margotzeko honako hauetan inspiratu da: Guadalquivirreko paduretan, Odiel ibaian; Andaluziako bi gunerik enblematikoenetan (Sevillako katedralean eta Granadako Alhambran); eta bere etxetik urrutiago dauden beste leku batzuetan (Eskozian, Irlandan, Mauritanian, Finlandian, Pirinioetako mendietan, Nafarroako Errege Bardeetan eta abar).

Erakusketa honetako paisaien berezitasuna hegaztiak hainbat klimatan eta ingurunetan ikusteko aukera da, baita horien dibertsitatea eta horien koloreak, kantua eta hegada ere.

El pintor y naturalista Francisco J. Hernández nos propone una mirada al mundo de las aves a través de las obras realizadas mediante diversas técnicas: óleo, acuarela, acrílico…

Las ilustraciones han sido inspiradas en las marismas del Guadalquivir y del Río Odiel; en dos de los espacios más emblemáticos de la geografía andaluza: la catedral de Sevilla y La Alhambra de Granada; y en otros lugares más alejados de su hogar: Escocia, Irlanda, Mauritania, Finlandia, la montaña pirenaica, las Bardenas Reales de Navarra, etc.

El denominador común de los paisajes que acoge esta muestra es la presencia de las aves en climas y ambientes diferentes con su diversidad y colorido, su canto y su vuelo.

**Irailak 15 - Azaroak 6**
**15 Septiembre - 6 Noviembre**
**ATARIA**



Secundino Muñoz

# Uretako hegazti ugaltzaileak identifikatzea

## *Identificación de aves acuáticas reproductoras*

### SEO/BirdLife Euskadi

Landa-irteera horrek, udan uretako hegaztiak ikusteaz gain, honako helburu hau du: Salburuan ugaltzen diren uretako hegazti-espezierik ohikoenak ezagutzea eta identifikatzea.

Sasoi honetan anatidoek erakusten dituzten luma ilunen ondorioz, horiek identifikatzeko ezagutu beharreko gako eta trikimailuak eta espezie bakoitzeko txitak desberdintzeko beharrezko aholku praktikoak errepasatuko ditugu.

Espezie horiek identifikatzeko ezaugarririk garrantzitsuenak bereizteko, behaketarako material optikoa edukitzea aholkatzen da.

Además de disfrutar de su observación en verano, esta salida de campo está destinada a reconocer e identificar las especies más habituales de aves acuáticas que se reproducen en Salburua.

Debido al plumaje críptico que muestran las anátidas en esta época, se repasarán las claves y trucos que facilitan su identificación y aquellos consejos prácticos necesarios para distinguir los pollos de cada especie.

A fin de apreciar las características más importantes para identificar estas especies se aconseja disponer de material óptico de observación.

**Uztailak 10 Julio ATARIA**

**Ordutegia:** 10:00 – 12:00

**Norentzat:** hegaztien munduan interesatuta daudenentzat

**Plaza-kopurua:** 25

**Hizkuntza:** gaztelera/euskara

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdea (*)

**Horario:** 10:00 – 12:00

**Dirigido a:** personas interesadas en el mundo de las aves

**Nº plazas:** 25

**Idioma:** castellano/euskera

**Inscripción:** ver página 4 (*)



Ramón Arambarri



## Burruntziak ala deabruaren zalditxoak?

## *¿Libélulas o caballitos del diablo?*

**Jose A. Gainzarain**

**Arabako Natur Institutua / Instituto Alavés de la Naturaleza**

Odonatoen hegaldi indartsuaren aurrean inor ez da epel geratzen. Odonatoak oso intsektu primitiboak dira eta gaur egun 5.500 espezie inguru daude. Hain zuzen, horien artean burruntziak eta deabruaren zalditxoak daude. Bi talde horiek ur-inguruneetan bizi dira, izan ere, horien larbak garatzeko nahitaezkoa baitira.

Tailer interesgarri horrek Salburuko hezegunean bizi diren odonato-espezie nagusiak ezagutzeko eta identifikatzeko aukera eskainiko digu.

Nadie se muestra indiferente ante el potente vuelo de los odonatos, grupo de insectos muy primitivos, con unas 5.500 especies actuales, que incluye formas tan conocidas como las libélulas y los caballitos del diablo. Ambos grupos viven asociados a ambientes acuáticos, que son vitales para el desarrollo de sus larvas.

Este interesante taller nos ofrecerá la oportunidad de conocer e identificar las principales especies de odonatos que habitan en el humedal de Salburua.

## Uztailak 24 Julio ATARIA

**Ordutegia:** 11:00 – 14:00

**Norentzat:** ornogabeen munduan interesaturiko pertsonentzat

**Plaza-kopurua:** 25

**Hizkuntza:** gaztelera

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdea (*)

**Horario:** 11:00 – 14:00

**Dirigido a:** personas interesadas en el mundo de los invertebrados

**Nº plazas:** 25

**Idioma:** castellano

**Inscripción:** ver página 4 (*)





Alfonso Roldán



# Birdwatching hastapenak: hegazti limikoloak

## *Iniciación al birdwatching: aves limícolas*

### SEO/BirdLife Euskadi

Hegazti limikoloak ertzetan jalkina duten hondartza, padura, aintzira eta lakuetan bizi ohi diren txoriak dira. Erlaitz kantauriarreko hezeguneak oso garrantzitsuak dira espezie horien bizi-iraupenerako, izan ere, elikatzeko eta atseden hartzeko guneak dira migrazio-aldietan. Salburua horietako bat da.

Naturan barrenako ibilbide honetan, uda amaieran hemen dabiltzan espezie nagusiak ezagutzen eta identifikatzen ikasiko duzu. Mundu osoan zabalduta daudenez eta distantzia handiak hegan egiteko gaitasuna dutenez, talde erakargarria eta interesgarria da ornitologiaren zaletuentzat.

Las aves limícolas son pájaros que comúnmente habitan playas, marismas, pantanos y lagunas con presencia de limos en las orillas. Los humedales de la cornisa cantábrica son lugares de suma importancia para la supervivencia de estas especies al utilizarlos como áreas de alimentación y de descanso durante sus periplos migratorios. Salburua es uno de estos espacios.

Mediante este recorrido naturalístico podrás aprender a reconocer e identificar las principales especies que recalan aquí a finales del verano. La enorme diversidad de especies repartidas por todo el mundo y su capacidad de volar grandes distancias hacen de este grupo uno de los más atractivos e interesantes para el aficionado a la ornitología.

## Irailak 11 Septiembre ATARIA

**Ordutegia:** 10:00 – 12:00

**Norentzat:** hegaztien ikerketan interesatuta daudenentzat

**Plaza-kopurua:** 25

**Hizkuntza:** gaztelera

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdea (*)

**Horario:** 10:00 – 12:00

**Dirigido a:** personas que quieran iniciarse en el estudio de las aves

**Nº plazas:** 25

**Idioma:** castellano

**Inscripción:** ver página 4 (*)





Quintas

# Ibilaldiak Eraztun Berdean zehar: Armentiako basoa

## *Paseos por el Anillo Verde: Bosque de Armentia*

Udan Eraztun Berdean zehar ibiltzera animatzen zaituztegu. Oraingoan, itzalpeak bilatuko ditugu Armentiako basoan, bero handiko egunetarako. Basoan landare eta animalia interesgarriak aurkituko ditugu. Gainera, hiriaren eta Gasteiz mendien artean basogune handi eta ondo kontserbatua izatea pribilegioa dela egiaztatuko dugu. Zatoz, baso bat duzu ezagutzeko!

En verano os animamos también a seguir recorriendo el Anillo Verde. Esta vez buscaremos la sombra, por si hace calor, del Bosque de Armentia. En este lugar podremos descubrir interesantes plantas y animales, comprobando el privilegio que supone contar con un espacio forestal amplio y bien conservado entre la ciudad y los Montes de Vitoria. ¡Ven, hay un bosque que explorar!

## Uztailak 10 Julio   ARMENTIA

**Irteera:** Armentiako basilikatik
**Ordutegia:** 10:00 – 12:00
**Norentzat:** jende guztiarentzat
**Plaza-kopurua:** 25
**Hizkuntza:** gaztelera edo euskara, eratu-riko taldearen ezaugarrien arabera
**Izenematea:** ikusi 4. orrialdean (*)

**Salida:** desde la basílica de Armentia
**Horario:** 10:00 – 12:00
**Dirigido a:** público en general
**Nº plazas:** 25
**Idioma:** castellano o euskera, según las características del grupo formado
**Inscripción:** ver página 4 (*)



# Erleen mundua

## *El mundo de las abejas*

Lantegi honi esker, familian erleen mundu zoragarria ezagutuko duzue, Atariko hainbat gunetan garatuko diren jarduera ugarien bitartez. Horrela, lantegiak honako jarduera hauek eskainiko ditu: txotxongilo-antzerkia, errotari gosaria (edo askaria), erakusketa interaktiboa eta erlauntza bat bisitatzea, babes- eta segurtasun-neurri egokiekin. Erleen mundu zoragarrira hurbiltzeko aukera ezin hobea duzu. Ez galdu aukera hori!

Este completo taller nos permitirá conocer en familia el fascinante mundo de las abejas a través de una amplia gama de actividades desarrolladas en diversos espacios de Ataria. Así, el taller incluye un teatro de guiñol, un desayuno molinero (o merienda), una exposición interactiva y la visita a una colmena, con las adecuadas medidas de protección y seguridad. Es una ocasión única para acercarse a las maravillas de las abejas. ¡No te la pierdas!

**Uztailak 16 - 17 Julio   ATARIA**

**Ordua:** bi txanda eguneko.
10:00 – 14:00 / 16:00 – 20:00

**Norentzat:** familientzat eta publikoarentzat orokorrean

**Plaza-kopurua:** 50 lagun txanda bakoitzean

**Hizkuntza:** gaztelera

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdean (*)

**Hora:** dos turnos cada día
10:00 – 14:00 / 16:00 – 20:00

**Dirigido a:** grupos familiares y público en general

**Nº plazas:** 50 personas en cada turno

**Idioma:** castellano

**Inscripción:** ver página 4 (*)



Ramón Arambarri

## Ura, lurra, airea eta sua. Dantza, ahotsa eta soinua 4 elementuen bitartez

## *Agua, tierra, aire y fuego. Danza, voz y sonido a través de los 4 elementos*

Anima zaitez...

Naturarekin zerikusia duten poemak errezitatuko dira, dantzaz eta zuzeneko musikaz lagunduta. Kantaturiko ahotsaren bitartez naturaren mundua esperimentatu nahi duten pertsona guztiei zuzendurik dago ikuskizuna.

Poesiaren, bokalizazioaren eta antzerki tekniken bitartez biodibertsitatearen mundurako ateak ireki nahi dira, guretzat oraindik ezezagunak diren barneko munduak aurkitzen eta adierazten laguntzeko.

Anímate a pasar una agradable velada al anochecer en Ataria, en la que se recitarán poemas relacionados con la naturaleza, acompañados de danza y música en directo. Una actividad ideal para todas aquellas personas interesadas en experimentar el mundo natural a través de la voz cantada.

Con esta actuación buscamos mediante la poesía, las vocalizaciones y las técnicas teatrales, abrir un mundo a la biodiversidad que nos ayude a encontrar espacios internos aún desconocidos para nosotros.

### Irailak 9 Septiembre ATARIA

**Ordua:** 20:30 – 21:30
**Norentzat:** publikoarentzat orokorrean.
**Plaza kopurua:** aretoa bete arte.
**Hizkuntza:** gaztelera.

**Horario:** 20:30 – 21:30
**Dirigido a:** público en general.
**Nº de plazas:** hasta completar aforo.
**Idioma:** castellano.





# Nola egin igel bat!

## *¡Vamos a hacer una rana!*

Gure etxean ondo begiratuz gero, zabortegian amaituko duten eta eskulan politak egiteko balio dezaketen gauza asko aurkituko ditugu. Oraingoan, igel bat egingo dugu birziklaturiko materialekin, eta, gainera, bere natura-ingurunean jarriko dugu. Ingurune hori ere berrerabilitako materialekin eraikiko dugu.

Gure irudimena esnatzeko eta naturako baliabide baliotsuak hobeto aprobetxatzeko aukera ona da. Aurrera, etor zaitez tailer honetara eta egin zure igeltxoa!

Si buscamos bien, encontraremos en nuestras casas muchas cosas que acaban en la basura y que pueden servir para realizar bonitas manualidades. Esta vez vamos a hacer una rana con materiales de reciclaje y, además, la vamos a poner en su entorno natural, que también construiremos con material reutilizado.

Es una buena oportunidad para despertar nuestra imaginación y aprovechar mejor los valiosos recursos de la naturaleza. ¡Adelante, ven a este taller y haz tu ranita!

## Irailak 18 Septiembre ATARIA

**Ordua:** 11:30 – 13:30

**Norentzat:** 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat (helduek lagunduta egon daitezke)

**Plaza-kopurua:** 20 haur eta horiei laguntzeko 20 heldu

**Hizkuntza:** gaztelera

**Hora:** 11:30 – 13:30

**Dirigido a:** niños/as de entre 3 y 10 años (pueden estar acompañados por personas adultas)

**Nº plazas:** 20 niños/as y 20 personas adultas acompañantes

**Idioma:** castellano




# Ezagutu Arabako itsasoa
# 1. Ezkibel – Gometxa (Gasteiz mendiak)

# *Descubre el mar de Álava*
# *1. Eskibel – Gometxa (Montes de Vitoria)*

**Carmelo Corral**

**Paleontologoa / *Paleontólogo***

Vitoria-Gasteiztik oso gertu leku zoragarriak aurki ditzakegu, eta duela milioika urte ozeano baten hondoa izan zen lurra zapal dezakegu. Ezkibelgo atxa eta La Picota hiriaren periferiatik oso erraz ikus daitezkeen egiturak dira.

Kareharrizko egitura horiek, paisaian azaltzen diren bereizgarri horiek, garai batean eraikuntzarako ustiatu zituzten. Gaur egun, Gometxako harrobia abandonatuta dago. Halere, marrazoek eta itsasoko beste animalia bitxi batzuek populaturiko itsaspeko mundura irekita dagoen leihoa da.

5 km-ko irteera horretan harriak bereizteko eta dituzten fosilak ezagutzeko aukera izango dugu. Gainera, aukera ezin hobea izango da antzinako garaietan bizitza nolakoa zen ulertzeko.

Muy cerca de Vitoria–Gasteiz existen magníficos lugares donde uno puede caminar por lo que hace muchos millones de años fue el fondo de un océano. La Peña Eskibel y La Picota son unas formaciones fácilmente reconocibles desde la periferia de la ciudad. Estas calizas, que dan unos resaltes característicos en el paisaje, fueron explotadas en tiempos pasados para la construcción. Hoy la cantera de Gometxa está abandonada, pero constituye una ventana abierta a un mundo submarino poblado por tiburones y otras curiosas criaturas marinas.

Esta salida de 5 km invita a distinguir las rocas y reconocer los fósiles que contienen. Además, es una excelente oportunidad para entender cómo era la vida en épocas tan remotas.

## Uztailak 17 Julio ATARIA

**Ordutegia:** 10:00 – 14:00
**Norentzat:** jende guztiarentzat (haurrak helduen laguntzarekin)
**Plaza-kopurua:** 25
**Hizkuntza:** gaztelera
**Izenematea:** ikusi 4. orrialdean (*)

**Horario:** 10:00 – 14:00
**Dirigido a:** público en general (niños acompañados por adultos)
**Nº plazas:** 25
**Idioma:** castellano
**Inscripción:** ver página 4 (*)



Ramón Arambarri

# Ezagutu Arabako itsasoa
# 2. Uribarri Dibiña

# *Descubre el mar de Álava*
# *2. Ullibarri Viña*

**Carmelo Corral**

**Paleontologoa / *Paleontólogo***

Arabako lautadaren mendebaldeko tuparriek antzinako itsas metaketetan dute jatorria. Geologoen arabera Santoniar garaikoak dira, eta 85 milioi urte inguru dituzte. Garai hartan itsasoa nahiko sakona zen. Gutxi gorabehera 200 m-ko sakonera zuen. Halere argia itsas hondoraino heltzen zenez, bertan bizitza garatu zen.

Uribarri Dibiña herritik gertu fosil ugari aurkitu dira, hala nola itsas trikuak, belakiak, bibalbioak eta amonite handi bat. Aztarna horiek, hain zuzen, informazio baliotsua eskaintzen digute.

Txango horrekin, itsas trikuak, eta bereziki *Micraster*ra, nolakoak ziren eta nola bizi ziren ikasiko dugu. Azken hori Arabako lautadako fosilik ugarienetarikoa da.

Las margas al oeste de la Llanada alavesa tienen su origen en antiguos depósitos marinos. Los geólogos dicen que corresponden al piso Santoniense, con una edad cercana a los 85 millones de años. El mar era bastante profundo en esa época, cercano a los 200 m, y la luz llegaba hasta el fondo, lo que permitía el desarrollo de la vida.

Cerca del pueblo de Ullibarri Viña se han encontrado numerosos fósiles, como erizos de mar, esponjas, bivalvos y un gran ammonites, cuyos restos nos aportan valiosa información.

Con esta excursión descubriremos cómo eran y vivían los erizos de mar, y en concreto el *Micraster*, que es el fósil más característico de la Llanada.

## Irailak 18 Septiembre ATARIA

**Ordua:** 10:00 – 13:00

**Norentzat:** jende guztiarentzat (haurrak helduen laguntzarekin)

**Plaza-kopurua:** 25

**Hizkuntza:** gaztelera

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdean (*)

**Hora:** 10:00 – 13:00

**Dirigido a:** público en general (niños acompañados por adultos)

**Nº plazas:** 25

**Idioma:** castellano

**Inscripción:** ver página 4 (*)

# uda / verano



Maiatzak 5 - Uztailak 3 / 5 Mayo - 3 Julio · Ataria
Erakusketak / Exposiciones
Naturaren argazkilariak / Fotógrafos de la Naturaleza



Uztailak 10 Julio · ARMENTIA · Familientzako jarduerak / Actividades familiares
Ibilaldiak Eraztun Berdean zehar: Armentiako basoa
Paseos por el Anillo Verde: Bosque de Armentia



Uztailak 10 Julio · ATARIA · Tailerrak / Ikastaroak   Talleres / Cursos
Uretako hegazti ugaltzaileak identifikatzea
Identificación de aves acuáticas reproductoras



Uztailak 11 - Irailak 4 / 11 Julio - 4 Septiembre · ATARIA
Erakusketak / Exposiciones
Unibertsoa miniaturan / Universo en miniatura



Uztailak 17 Julio · EZKIBEL – GOMETXA · Natur ibilbideak / Recorridos naturalísticos
Ezagutu Arabako itsasoa 1. Ezkibel – Gometxa (Gasteiz mendiak)
Descubre el mar de Álava  1. Eskibel – Gometxa (Montes de Vitoria).



Uztailak 16 - 17 Julio · ATARIA · Familientzako jarduerak / Actividades familiares
Erleen mundua
El mundo de las abejas



Uztailak 24 Julio · ATARIA · Tailerrak / Ikastaroak   Talleres / Cursos
Burruntziak ala deabruaren zalditxoak?
¿Libélulas o caballitos del diablo?



Irailak 9 Septiembre · ATARIA · Familientzako jarduerak / Actividades familiares
Ura, lurra, airea eta sua. Dantza, ahotsa eta soinua 4 elementuen bitartez
Agua, tierra, aire y fuego. Danza, voz y sonido a través de los 4 elementos



Irailak 11 Septiembre · ATARIA · Tailerrak / Ikastaroak   Talleres / Cursos
Birdwatching hastapenak: hegazti limikoloak
Iniciación al birdwatching: aves limícolass



Irailak 12 - Maiatzak 1 | 12 Septiembre - 1 Mayo Ataria
Erakusketak / Exposiciones
Paperezko hegoak / Alas de papel



Irailak 18 Septiembre · ATARIA · Natur ibilbideak / Recorridos naturalísticos
Ezagutu Arabako itsasoa 2. Uribarri Dibiña
Descubre el mar de Álava 2. Ullibarri Viña



Irailak 18 Septiembre · ATARIA · Familientzako jarduerak / Actividades familiares
Nola egin igel bat!
¡Vamos a hacer una rana!

Paper birziklatuan (%100) inprimatu da. Impreso en papel 100% reciclado.